



Demokrazia birpentsatzea eta eraikitzea eraldatzen ari den nazioarteko ordenaren testuinguruan



Ira. 05 2025

Kod. G24-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 05 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honen helburu nagusia demokraziak bizi duen eraldaketa-krisiari buruz hausnartzea da. Krisi horrek sistema demokratikoen kalitateari eta funtzionamenduari eta munduko hainbat tokitako administrazio publikoei eragiten die, eta hainbat modutan agertzen da. Alde batetik, herritarren desafekzioan; izan ere, pertsona asko politikatik deskonektatuta sentitzen dira, eta horrek hauteskundeetan parte-hartze txikia, politikariekiko eszeptizismoak gora egitea eta prozesu demokratikoarekiko gero eta apatia handiagoa eragiten ditu. Beste alde batetik, elite politikoeikiko mesfidantzari erantzunez sortzen den populismoaren gorakadan ere agertzen da; herritarrek ordezkatzeko promesak egiten dituzten mugimenduak izaten dira, nahiz eta sarritan arazo konplexuak sinplifikatzen dituzten eta arau demokratikoak ahuldu ditzaketen, diskurtso zatitzaile eta polarizatzaileak sustatzearen ondorioz. Horiez gain, desberdintasun ekonomikoen hazkundean ere azaltzen da; izan ere, aberatsen eta pobreen arteko arrakalak bidegabekeria- eta marjinazio-sentimendua eragiten dituzte, atsekabea eta alternatiba politiko teknopopulisten bilaketa elikatuz. Era berean, erakundeen higaduran ere geratzen da agerian, herrialde batzuetan boterea kontzentratu nahi duten lider autoritarioak erakunde demokratikoak ahultzen ari direlarik, batera prentsa-askatasunaren, independentzia judizialaren eta gizarte zibilauren aurkako erasoak gertatzen diren bitartean. Azkenik, desinformazioan eta manipulazioan agertzen da krisi hori, albiste faltsuak ugaritzeak eta sare sozialen bidez informazioa manipulatzeko zaildu egiten baitute herritarrek erabaki informatuak hartzeko duten gaitasuna, eta horrek iritziak polarizatzea eta erradikalizatzea ekar baitezake.

Ikastaro honetan, munduan demokrazia eraldatzea eragiten duten faktoreei erreparatuko diegu, eta gure inguruko demokrazietan zer gertatzen den azaltzen saiatuko gara. Demokraziaren eraldaketaren eta horren ondorioen inguruko eztabaida politikoaren egungo egoeran sakonduko dugu; demokrazia mantentzeko eta finkatzeko funtsezko erronkak aztertuko ditugu, bai politika publikoen ikuspegitik, bai herritarren kultura politikotik.

Helburuak

Munduan demokraziaren eraldaketa eragiten duten faktoreak sakon aztertzea eta inguruko demokrazien testuinguru politiko, ekonomiko eta soziala azaltzea. Hauek dira testuinguru horren ezaugarri nagusiak: erakundeen krisia, bitartekaritza-krisiak, herritarren desafezioa, polarizazioa eta populismoaren gorakada.

Demokraziaren eraldaketari buruzko egungo eztabaidaren egoeraz hausnartzea eta horrek iritzi publikoan dituen ondorioak aztertzea. Horretarako, komunikabide tradizionalen, sare sozialen, aktore politikoen eta herritarren papera aztertuko da gure inguruko gizarteetan, bereziki euskal gizarteetan.

Inguruko gizarteek, eta bereziki euskal gizarteak, demokrazia mantendu eta sendotzeko dituzten erronka nagusiak aztertzea, bai politika publikoen ikuspegitik, bai herritarren kultura politikoaren ikuspegitik.

Antolakuntza



Zuzendaritza



Yosu Arraiz Aramburu

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia Kargua: Estrategia zuzendari nagusia (2025-gaur egun). Ikasketak: Ingeniaritza Zibileko Gradua (UPV/EHU); Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan Masterreko ikasketak (Universidad de Cantabria); Herrigintzaren Berrikuntzan Aditu ikasketak (MU). Ibilbide profesional eta politikoa: Administrazioaren Berrikuntzako zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia (2023-2025). Hirigintza, obra eta zerbitzuetako zinegotzi arduraduna, Elgoibar (2015-2023). Debarbarrena Mankomunitateko presidentea (2019-2023). Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidenteordea (2019-2023).

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-09-05 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa